**BESKOITZEKO IKASTOLAREN ALDE 2023/01/17an**

Ahalgingarrizkoa denez egoera
Zonbait bertsotan goaz hunen salatzera
Beskoitzen auzapezak nolako manera
Haur bat diskriminatuz sesiturik gera

Hemen kondatzen dena, ez aspaldikoa
Ez pentsa den De Lancre-n oi garaiekoa
Zerbait itxura badu molde berekoa
Aste huntan Beskoitzen gertatutakoa

Auzapez andereak emana manua
Ikastolari muga, haurren kopurua
Garapena haustea, duen helburua
Bortitzago eginez, bere mendekua

Ikastolak kantinan joa zuen heina
Auzapez kontseilarik eman zigutena
Ororen gainetik hau legez kanpo dena
Zerbitzu publikoa du hunek izena

Kantinarat etorri hiru kontseilari
Haur soberakinaren zirela xekari
Hiru urte dituen, gure haurnoari
Esplikapen bat eman, zentzugabeari

Ulertua genuen soberan ginela
Euskara, ikastola, arazoa zela
Beskoiztarrer "Eleak" gezurrak zirela
Erakutsiz denetaz, ere gai direla

Ikastola bezala gira zapalduak
Hautetsi diren batzuz ezin onartuak
Bizitzen ditugu guk, hauen mendekuak
Gure haurrak gelditruz nahigabetuak

2023ko Urtarrila, Anttonek Idatzia